

Xedapen Orokorrak

JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA

Zk-4478

318/1999 DEKRETUA, abuztuaren 31koa, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua arautzen duena.

Apirilaren 27ko 117/1993 Dekretuak Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua onartu zuen. Dekretuaren helburua zen erakundearen ikusizko nortasun bakarra eskaintzea eta, ondorioz, sailek eta beren mendeko erakundeek irudi uniforme erabiltzea beren jardueretan.

Eskuliburua onartu zenetik nahikoa denbora joan dela kontuan hartuta, bidezkoa da hura eguneratzea eta horretan jasotzea harrezkero gertatu diren aldaketak.

Horrela, abenduaren 22ko 384/1998 Dekretuak —Eusko Jaurlaritzaren berezitasun teknikoak eta identitate bisualaren elementu grafikoaren erabilpena arautzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duenak— hizki-mota berria sartu zuen «Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco» erakunde-logotipoaren izenean. Jatorrizko testuaren lehenengo aldaketa apirilaren 27ko 116/1993 Dekretuak onartu zuen.

Horiez gain, 384/1998 Dekretuak erakunde-nortasunaren eskuliburu berria lantzeko beharra aurreikusten zuen, eta bertan adierazten zenez, eskuliburuak hizki-mota berria jaso beharko luke, bai eta gerora luzatu ezin diren egokitzapen, aplikazio berri eta aurreikuspenak ere.

Ondorioz, Lehendakartzaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 1999ko abuztuaren 31n egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Hona hemen Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren oinarritzko osagaiak: armarría —bertsio heraldikoan eta erakunde-bertsioan— eta «Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco» logotipoa; biek batera erakunde-marka eratzen dute. Dekretu honen bidez onartu egiten dira markaren zein logotipoaren berezitasunak, hain zuzen ere dekretu honen eranskinen agertzen diren bezala.

2. artikulua.— 1.— Eusko Jaurlaritzaren erakunde-marka armariaren eta logotipoaren bat egitea da; eta erakunde-nortasunaren eskuliburuan adierazten diren agermoldeak eta erabilerak izango ditu.

2.— Nolanahi ere, eta oro har, honakoetan azaldu beharko du markak:

- a) Eraikin ofizialetan.
- b) Eusko Jaurlaritzak emandako diploma eta titulu guztietan.

Disposiciones Generales

PRESIDENCIA DEL GOBIERNO

Nº-4478

DECRETO 318/1999, de 31 de agosto, por el que se regula el Manual de Identidad Corporativa del Gobierno Vasco.

Por Decreto 117/1993, de 27 de abril, fue aprobado el Manual de Identidad Corporativa del Gobierno Vasco con el objetivo de proyectar una imagen uniforme que permitiera reflejar, al amparo de una única identidad visual, las actividades de los diferentes Departamentos y organismos dependientes de los mismos.

El tiempo transcurrido desde la aprobación del Manual aconseja su actualización, acogiendo las modificaciones que desde entonces se han producido.

Así, el Decreto 384/1998, de 22 de diciembre, por el que se procede a la segunda modificación del Decreto que regulaba las especificaciones técnicas y la utilización de los elementos gráficos de identidad visual del Gobierno Vasco (la primera modificación se produjo por Decreto 116/1993, de 27 de abril) introdujo una nueva tipografía en la composición del nombre del logotipo corporativo «Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco».

Dicho Decreto 384/1998, ya preveía la necesidad de proceder a la elaboración de un nuevo Manual de Identidad Corporativa en el que se recogiera la citada nueva tipografía, así como las adaptaciones, nuevas aplicaciones y previsiones que resulta inaplazable atender.

Por todo lo anterior, a propuesta de la Presidencia, previa deliberación y aprobación de Consejo de Gobierno el día 31 de agosto de 1999,

DISPONGO:

Artículo 1.— Son elementos básicos de identidad del Gobierno Vasco, que integran su Marca Corporativa, el escudo, en sus versiones heráldica y corporativa, y el logotipo «Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco», de acuerdo en ambos casos con las especificaciones contenidas en el Manual de Identidad Corporativa, que se aprueba y figura como Anexo al presente Decreto.

Artículo 2.— 1.— La Marca Corporativa del Gobierno Vasco, fusión del escudo y logotipo corporativos, tendrá las configuraciones y usos señalados en el Manual de Identidad Corporativa.

2.— En todo caso, y con carácter genérico, deberá figurar en:

- a) Edificios oficiales.
- b) Diplomas y títulos de todo orden expedidos por el Gobierno Vasco.

c) Erabilera ofizialeko dokumentu, inprimaki, seilu eta gutunen idazpuruetan.

d) Argitalpen eta iragarki ofizialetan.

e) Erabilera ofizialeko objektuetan, adierazgarriak badira.

f) Jaurlaritzak ezartzen dituen gainerako kasuetan.

3. artikulua.– 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko sailek eta beren administrazio-unitateek, zein diren ezagutarazteko, erakunde-nortasunaren eskuliburuan bildutako elementuak, eta ez besterik, erabiliko dituzte jendaurreko komunikazio-agerraldi guztietan; beti ere, bat eginda eskuliburuan jasotako berezitasun teknikoekin eta erabilera-irizpideekin.

2.– Aurreko paragrafoan ezarritakoa horrela izanik ere, bestelako nortasun-ikur berekiak ere erabili ahal izango dira jendaurreko zenbait zerbitzu edo jardueratan, baina, horretarako, ezinbestekoa izango da Jaurlaritzaren Kontseiluaren akordioa, beti ere Lehendakari-tzaren idazkariak, aurretiaz, aldeko txostena emanda. Hartutako akordioa Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Horretarako, zerbitzu edo jarduera horiek egiten dituen sailak eskabidea aurkeztuko du Lehendakaritzan. Eskabidean, adierazi beharko da zein egoera den halako eskabidea egitera bultzatu duena; halaber, proposatutako diseinua eta aplikazioa zehaztu beharko dira. Hartzen diren ikur berriak, nolana ere, erakunde-nortasunaren eskuliburuko «beste markekin batera» atalean ezarritako erara erabili beharko dira.

4. artikulua.– Industrian, merkataritzan edo zerbitzuetan —arlotan pribatuan— jarduten duten erakunde autonomiadunek eta herri-baltzuek nortasun-ikur berekiak izan ditzakete. Baina, horrela izanik ere, ikur horien erabilerak egokiro egin beharko du bat ikusizko nortasuneko beste osagaiekin, eta beti ere erakunde-nortasunaren eskuliburuko «beste markekin batera» atalean ezarritako eran.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Euskadiko Autonomia Estatutuak 5. artikuluko 1. idatz-zatian ezarri zuenez, ikurrina da Euskadiko bandera. Gaur egun, bestalde, ikurrinaren erabilera ofizialeko koloreak eta neurriak estandar tekniko normalizatueta egokitzeko, oraingo erakunde-nortasunaren eskuliburuak atal berezi bat du, erabateko begirunea dio-na arlo horretan indarrean dagoen legediari.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Dekretu hau indarrean jartzen denetik sei hileko epean, gehienez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek eta Instituzionalak erabiltzen dituzten armariak, logotipoak eta identifikazio-elementu guztiak eguneratu egin beharko dira, baldin eta arau honetan ezartzen diren xehetasunak betetzen ez badi-tuzte.

c) Documentos, impresos, sellos y membretes de uso oficial.

d) Publicaciones y anuncios oficiales.

e) Objetos de uso oficial que tengan carácter representativo.

f) En los demás casos que así se establezca.

Artículo 3.– 1.– Los Departamentos de la Administración General de la Comunidad Autónoma del País Vasco y sus unidades administrativas utilizarán para su identificación, en todas las manifestaciones de comunicación pública, única y exclusivamente los elementos recogidos en el Manual de Identidad Corporativa, según las especificaciones técnicas y los criterios de utilización contenidos en el mismo.

2.– No obstante lo señalado en el párrafo anterior, por Acuerdo de Consejo de Gobierno, que será publicado en el Boletín Oficial del País Vasco, y previo informe favorable del Secretario de la Presidencia, podrá disponerse la utilización de otras marcas o signos de identidad específicos para determinados servicios o actividades públicas.

A tal efecto, el Departamento al que correspondan esos servicios o actividades presentará ante Lehendakari-tza la oportuna solicitud, con indicación de las circunstancias concurrentes que justifiquen su petición, detallando el diseño propuesto y sus aplicaciones. Los nuevos símbolos adoptados estarán sujetos a lo establecido en el apartado «convivencia con otras marcas» del Manual de Identidad Corporativa.

Artículo 4.– Los Organismos Autónomos y las Sociedades Públicas que desarrollen su actividad industrial, comercial o de servicios en el sector privado podrán disponer de signos de identidad específicos. En todo caso, su utilización deberá mantener una adecuada convivencia y relación con otros elementos de identidad visual, en la forma establecida en el apartado «convivencia con otras marcas» del Manual de Identidad Corporativa.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

Con el fin de adoptar unos estándares técnicos normalizados en lo relativo a colores y proporciones en el uso oficial de la bandera de Euskadi, así establecida en el artículo 5, apartado 1, del Estatuto de Autonomía del País Vasco, el Manual de Identidad Corporativa acoge un apartado específico, respetuoso en todo caso con la legislación vigente en la materia.

DISPOSICIÓN TRANSITORIA

En el plazo máximo de seis meses a partir de la entrada en vigor del presente Decreto, se procederá a la sustitución progresiva de todos aquellos escudos, logotipos y elementos de identificación que, encontrándose en uso por parte de la Administración General e Institucional de la Comunidad Autónoma del País Vasco, no se ajusten a las especificaciones recogidas en la presente norma.

Aurrekoa horrela izanik ere, monumentutzat jotako eraikin ofizialetan eta apaindura bereziko bestelako ondasunetan, baldin eta ikurrak izanaren zati badira eta horiek aldatzea kalteak eragiten badizkio egiturari, eutsi egingo zaie oraingo identifikazio ikurrei, aldatu gabe.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indarrak gabe uzten dira ondoko xedapen orokor hauek:

– 690/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Eusko Jaurlaritzaren ikustezko izatasunaren elementu grafikoei dagozkien zehaztasun teknikoak eta elementu horien erabilera arautzen dituena.

– 116/1993 Dekretua, apirilaren 27koa, Eusko Jaurlaritzaren ikustezko izatasunaren elementu grafikoei dagozkien zehaztasun teknikoak eta elementu horien erabilera arautzen dituen Dekretua aldatzeko dena.

– 117/1993 Dekretua, apirilaren 27koa, Eusko Jaurlaritzaren erakunde-nortasunaren eskuliburua onartzen duena.

– 384/1998 Dekretua, abenduaren 22koa, Eusko Jaurlaritzaren berezitasun teknikoak eta identitate bisualaren elementu grafikoak erabilpena arautzen dituen Dekretua bigarren aldiz aldatzen duena.

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa.– Lehendakaritzaren idazkariak, ebazpen bidez, zehaztu egingo du nola aplikatu behar diren erakunde-nortasunaren oinarriko zehaztasun eta arauak papertzan, publizitatean, argitalpenetan, ibilgailuetan eta seinaleetan.

Bigarrena.– Eusko Jaurlaritzako sailtako zerbitzu-zuzendariak, Lehendakaritzaren idazkariarekin bat eginik eta eskuliburuan jasotako zehaztasunei jarraiki, begiratu eta zaindu egingo dute ondo eta zuzen aplikatzen ote diren Eusko Jaurlaritzaren ikusizko nortasunaren ikurrak. Horretarako, behar diren jarraibideak eman ahal izango dituzte dagozkien administrazio-unitateek bete ditzaten.

Hirugarrena.– Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Donostia-San Sebastián, 1999ko abuztuaren 31n.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

Ale Gehigarri berezian argitaratzen da aipatutako eranskina

No obstante lo anterior, se mantendrán los signos de identificación en los edificios oficiales declarados monumentos y en aquellos otros bienes de cuya ornamentación formen parte sustancial y cuya estructura pudiera quedar dañada al sustituirlos.

DISPOSICIÓN DEROGATORIA

Quedan derogadas las siguientes disposiciones generales:

– Decreto 690/1991, de 17 de diciembre, por el que se regulan las especificaciones técnicas y la utilización de los elementos gráficos de identidad visual del Gobierno Vasco.

– Decreto 116/1993, de 27 de abril, de modificación del Decreto por el que se regulan las especificaciones técnicas y la utilización de los elementos gráficos de identidad visual del Gobierno Vasco.

– Decreto 117/1993, de 27 de abril, por el que se aprueba el Manual de Identidad Corporativa del Gobierno Vasco.

– Decreto 384/1998, de 22 de diciembre, por el que se procede a la segunda modificación del Decreto por el que se regulan las especificaciones técnicas y la utilización de los elementos gráficos de identidad visual del Gobierno Vasco.

DISPOSICIONES FINALES

Primera.– La aplicación de las especificaciones y normas básicas de identidad corporativa a los diferentes soportes de comunicación, en particular en papelería, publicidad, publicaciones, parque móvil y señalética, se determinará por Resolución del Secretario de la Presidencia.

Segunda.– Los Directores de Servicios de los Departamentos del Gobierno Vasco, en coordinación con la Secretaría de la Presidencia, velarán por la correcta aplicación de los símbolos de identidad visual del Gobierno Vasco según las especificaciones recogidas en el Manual, pudiendo dictar al efecto las instrucciones precisas entre las unidades administrativas de sus respectivos Departamentos.

Tercera.– El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Donostia-San Sebastián, a 31 de agosto de 1999.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

En Suplemento aparte se publica el Anexo que se cita